

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

5432

AGINDUA, 2019ko azaroaren 12koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez eguneratzen baitira Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legean –ekainaren 27ko 10/1997 Legeak aldatu zuen lege hori–, 6. artikuluan, Kontseilu Nagusia dago araututa gizarte-eragileek parte hartzeko organo gisa. Kontseilu hori honako hauek osatuko dute: presidentea; presidenteordea; sindikatu-antolakunde eta konfederazioen bost ordezkari; enpresaburuen ordezkari instituzionala duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburuen elkarteetako hiru ordezkari; Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko ordezkari bat; Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat –udalak eta foru-aldundiak entzun ondoren izendatua–; eta, kontuan hartuko da bakoitzak gaian daukan eskumena, Osasun Sailaren bi ordezkari –horietako batek presidenteorde gisa jardungo du–, eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko hiru ordezkari (egun, Lan eta Justizia Saila). Halaber, artikulua horretan dago adierazita zuzendari nagusiak parte hartuko duela Kontseilu Nagusiaren bileretan, eta hitza izango duela, baina botorik ez.

Artikulu horretan bertan dago xedatuta Kontseilu Nagusiko kideak izendatu eta kargugabetzeko, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailek eman behar duela horretarako agindua (aurrerantzean, Lan eta Justizia Saila), bakoitzari dagokion erakundeak eta administrazioak proposatuta.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2017ko urriaren 11ko Aginduaren bidez, zeinaren bidez eguneratzen baitira Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak, eguneratu egin ziren Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak.

Hartu-emanetan egon dira, batetik, Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietan, Osasun Saila, Lan eta Justizia Saila eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saila eta, bestetik, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eta Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confebask. Elkarrizketa horietan, proposatu da zenbait kide aldatzea; beraz, kide izendapenak egin behar dira, eta argitaratu eman kideen zerrenda berria, Kontseilu Nagusiak ohi bezala funtziona dezan, ezinbesteko garrantzia baitauka erakunde autonomoaren jardunean.

Kontuan hartuta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legearen 6.7 artikuluan eta erakunde horren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu zuen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren 6.4 artikuluan xedatutakoa, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak izendatzea eta zerrenda argitaratzea. Hauek izango dira organo horretako kide:

Presidentea:

Titularra: Jon Azkue Manterola, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea.

Ordezkoa: Elena Pérez Barredo, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria.

Presidenteordea:

Titularra: Ignacio Jesús Berraondo Zabalegui, Osasuneko sailburuordea.

Ordezkoa: Juan José Aurrekoetxea Agirre, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria.

Bokalak:

– Lan eta Justizia Sailaren ordezkarietan:

Titularra: Elena Pérez Barredo, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria.

Ordezkoa: Joaquín Díaz Arsuaga, Gizarte Ekonomiako zuzendaria.

Titularra: Marcos Muro Nájera, Enplegu eta Gazteriako sailburuordea.

Ordezkoa: Amaia Arteaga Dañobeitia, Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria.

Titularra: Iciar Gonzalez Carrasco, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako zuzendariordea.

Ordezkoa: Jose Antonio Carnero Fernandez, Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako burua.

– Osasun Sailaren ordezkarietan:

Titularra: Joseba Bidaurrezaga Van-Dierdonck. Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea.

Ordezkoa: Francisco Borja Cirarda Larrea, Osasun Sustapenaren arduraduna.

– Eusko Jaurlaritzak izendatuta, udalak eta foru aldundiak entzun ondoren:

Titularra: Izaskun Urien Azpitarte. Lan Harremanen zuzendaria.

Ordezkoa: Inés Alvarez Vázquez, Lan Harremanen Zuzendaritzako Prebentzio Zerbitzuaren arduraduna.

– Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren izenean:

Titularra: Iñaki Nubla Otaola.

Ordezkoa: Sergio Achicallende Dondiz.

– Confebask-Euskal Enpresarien Konfederazioaren izenean:

Titularra: Virginia Múgica Conde.

Ordezkoa: Gonzalo Salcedo Bilbao.

Titularra: Montserrat Ruiz Mitjans.

Ordezkoa: Nerea Zamacola Garate.

Titularra: Fernando Raposo Bande.

Ordezkoa: Amaia López Iriondo.

2019ko azaroaren 22a, ostirala

– Langileen izenean:

ELA sindikatuaren ordezkartzan:

Titularra: Pello Igeregi Santamaria.

Ordezkoa: Andoni Larralde Etxarte.

Titularra: Leire Heredia Bilbao.

Ordezkoa: Izaro Mujica Badiola.

CCOO sindikatuaren ordezkartzan:

Titularra: Alfonso Ríos Velada.

Ordezkoa: Luis Mouliá Mayor.

LAB sindikatuaren ordezkartzan:

Titularra: María Lourdes Eraso Iturrioz.

Ordezkoa: Ibon Zubiela Martín.

UGT sindikatuaren ordezkartzan:

Titularra: Esperanza Morales Quicios.

Ordezkoa: Amaia Calleja Irazu.

Alberto Alonso Martín, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusia; Kontseilu Nagusiaren bileretan parte hartuko du eta hitza izango du, baina ez du botorik izango.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Lan eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 12a.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.